

Burujabetza eta feminismoa hizpide izango dituzte ostiralean Leioako Campusean eta Bilbon

✘ “Terra de Ningú” liburuaren aurkezpena baliatuko dute bi mahai inguru antolatzeko. “Terra de Ningú” liburua Kataluniako prozesu eratzailerari begirako ekarpena da. Mundu mailako emakume ezberdinen ekarpenekin egindako liburua da. Liburuaren aurkezpena egingo dute ostiralean, eta Euskal Herrira begirako eztabaida mahai gaineratzeko baliatuko dute eguna. Zer da estatu feminista bat? Zertan datza? Baldintzak ba al daude gaur egun euskal errepublika feminista sortzeko? Zergatik estatu feminista eta ez soilik sozialista? Posiblea al da estatu bat sortzea feminista izango dena botere harremanak erreproduzitu gabe edota gaur egun existitzen diren instituzioekin? Ez al genituzke asmatu behar instituzio berriak edo demokrazia kontzeptua irauli? Horrelako galderari erantzungo diete ostiralean bi mahai inguru hauetan:

- Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean, 34. Gelan, 11:30ean.
- Bilboko La Bolsan, 18:30ean.

Gatamaula Feministako Maria Rodó, Feminismo Dekolonialako Sara Cuentas, Bilgune Feministako Saioa Iraola, EHUko irakasle Jule Goiokoetxea eta LABeko idazkari nagusi ohi Ainhoa Etxaide izango dira hizlariak. Leioako mahai inguruan, Kurdistan Women’s Relation Officeko Meral Çiçek-ek ere hartuko du parte.